


Nork: [Azkoitiko Hitza](#) -Mar 16, 2016

'TXANTON GARROTE AGERTOKITIK JAITSI ZEN EGUNA' SAIAKERA AURKEZTU DU IÑIGO ARANBARRIK

Pamiela argitaletxearekin kaleratu du lana azkoitiar idazleak, eta gaur aurkeztu du Donostian. Azkoitiko bi gertaera hartu ditu saiakera liburuaren abiapuntu gisa: Peñafiorida kondearen 'El borracho burlado' operaren estreinaldia eta 1766ko apirileko matxinada.





Liburuaren azala.

Txanton Garrote agertokitik jaitsi zen eguna saiakera liburua aurkeztu du gaur, asteazkena, Iñigo Aranbarri azkoitiar idazleak. Donostiako Udal Liburutegiko sotoan egin du Pamiela argitaletxearekin kaleratutako liburuaren aurkezpena Aranbarrik, eta dagoeneko salgai da liburua 12 euroren trukean.

Azkoitiko bi gertaera hartu ditu Iñigo Aranbarrik saiakeraren abiapuntutzat: Peñaforida kondearen *El borracho burlado* operaren estreinaldia eta 1766ko apirileko matxinada. “Gure historiako bi koska, interes desberdinak tarteko, elkarrengandik bereizita eman zaizkigunak, eman zaizkigunean”, esan du idazleak. Horrez gain bi gertakarien arteko lotura azpimarratu du Aranbarrik: “Garai bera, gizarte bera, jende bera baita agertokian barregarri erakutsi eta urtebete pasatxora gosearen beldur eta bidegabekeriaz nazkatuta Azkoitiko eta Azpeitiko kaleetara ateratzen dena. Aurten dira 250 urte”.

Idazleak esan duenez, “orain arte isil-gordean egon den agiri asko” aurkituko du irakurleak liburuan: “Kondearen operako protagonista den Txanton Garrote agertokitik jaitsi eta egilearen solaskide bihurtuta, klasismoak gure teatroan zer bide hartu duen erakutsiko zaio orrietan barrena dabilenari. Begien bistan izan dituen kasualitateekin harrituko da. Dokumentazio historikoa dago baina ez da historia saiakera. Peñafloidaren obra aztertzen da baina ez da entsegu literarioa”.

Liburuaren hitzaurrea Jose Luis Otamendi azpeitiar idazleak egin du, eta hark dioenez, “akademizismotik urrun, ezohiko artefaktu literarioa» da Aranbarriarena; “doia, neurtua eta suharbera”.



AZKOITIA AZPEITIA IÑIGO ARANBARRI LIBURUA SAIAKETA TXANTON GARROTE

Ez dago iruzkinik

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#)

Onartu